sagardo botila **zarata**

Batzuk txotxean, besteak lo

Hernaniko txotx garaiko jarraipen batzordeak zarata gutxitzeko kanpaina jarri zuen abian

Sagardotegiko planean jarraitu eta edaria baino gehiago sartzen da normalean. Sabela ondo bete eta busti ondoren, ondo pasatzeko ordua heldu ohi da. Afalondoa luzea izaten da, sagardoak animatutako solaldi edo kantuekin. Eta etxera joateko gogo handirik izaten ez denez, festan jarraitzeko tokiren bat topatu behar. Hernani izaten da askoren aukera. Kardaberaz kaltea eta Kale Nagusia gehienbat, bertan 30 taberna inguru [illegible] *dute toki guztietan gertatzen den antzeko zalaparta eta zarata izan ohi dira protagonistak. Udal ituriek adierazi digutenez, mila eta hiru mila pertsona bitartean elkartu ohi da Hernaniko kaleetan gauero sagardotegi garaian.*

Hori dela eta, aurten Hernaniko txotx garaiko jarraipen batzordeak neurriak hartzea erabaki du. Batzorde hori Udalak, Kaxko auzo elkarteak, sagardogileek eta tabernariak buru dituen merkatari elkarteak osatzen dute. Mahai horretako kide Andoni Amondarain zinegotziak, ordea, adierazi digu batzordearen egitekizuna zarata gutxitzea [illegible] *buruz txotx garaia ahalik eta hobeto kudeatzea da. Hain gurea dugun ohitura hau sustatu nahi dugu, eta horretarako antolatzen ditugu Txotx Eguna eta beste ekintza batzuk. Esaterako, sagardoaren eta sagardoaren inguruko gaiak lantzen ditugu, historia eta ekonomia esaterako, eta helduxeagoak direnei kontsumo arduratsua egiteko beharraz ere hitz egin zaie. Bilera batzuetan, zarataren arazoa atera zen, eta horri konponbideak jartzen ere saiatu gara»*, adierazi du Amondarainek.

Iragarki kanpaina

[illegible] *zarata gutxitzeko kanpaina izan da, ordea, batzordeak aurrera eramandako proiektuetatik oihartzun handien izan duena. Horren zergatiaren zati handi bat irratian entzun ahal izan diren esketx originalek dute. Euskadi Gaztea, 40 Principales, Euskadi Irratia eta Radio Euskadin entzun diren iragarki horiek uste baino erantzun hobea izan dutela onartu digu zinegotziak: «Hasieran, esketx horiek grabatzeko ideia epe luzean jendearen kontzientziara iristeko asmoarekin pentsatu genuen. Hemendik urte batzuetara, hainbeste aldiz entzun eta gero, emaitzak ikusten hastea zen helburua. Baina dagoeneko sumatu dugu horien eragina. Goizeko bostetan mozkor ikaragarria zeramaten pertsona batzuk «ssssshhhhh» eginez ikusi izan dira. Buila egiteko beldurrez aurkitu izan dira behin baino gehiagotan. Eta hori esanguratsua da». Baina 12.000 euroko aurrekontua duen komunikazio kanpaina honetan beste baliabide batzuk ere erabili dira. Autobusetan panelak jarri, kartelak kaleetan eta liburuxkak argitaratu dira, mezu garbi batekin: zarata taberna eta sagardotegi barruan atera daitekeela, eta ez kalean. Hori da kanpainaren gakoa.*

Izan ere, horren helburua lo egin nahi duten bizilagunak errespetatzea da. Ostegunean hasi eta igandera arte, otsailetik apirilera arte gauetan ez baita bakerik Hernaniko zenbait kaletan. Horregatik, zarata gutxitzeko aipatutako mezua ez ezik beste neurri batzuk ere hartu dira txotx garaiko jarraipen batzordean. Tabernentzako ordutegian adostea izaten da puntu eztabaidatuena. Isabel Casco Kaxko auzo elkarteko buruaren arabera: «Bizilagunentzat ordutegiarena gai garrantzitsua da, eta hori dute euren kexa nagusia. Guk ulertzen dugu tabernarien eskaera. Guk ere gure saltokiak baditugu, eta normaltzat jotzen dugu tabernak garai hau ahalik eta gehiena aprobetxatu nahi izatea. Horregatik, adostasun bat iristen dugu, ordutegi zabala onartuta baina baldintza batzuk ezarrita». Urtarrilaren 3tik apirilaren 30era arte, eta igandetik ostegunera, taberna eta kafetegiak 01:00etan itxi behar izan dute, eta taberna berezi, pub etadisko tabernak, 02:30ean. Otsailaren 3tik apirilaren 9ra arte, ostiral, larunbat eta jai bezperetan, aldiz, taberna eta kafetegiak 03:00 arte ireki ahal izan dituzte, eta taberna berezi ak, pub eta disko tabernak 04:30 arte.

Baldintzei dagokienez, batzuek zaratarekin zerikusi zuzena dute. Ate bikoitzak izatea eta leihoak bezalaxe itxita edukitzea, esaterako. Kalera ere beirazko edalontziak ez aterata zarata gutxitzen da, zauriak saihesteaz gain. Beste batzuek ez dute zaratarekin hain lotura zuzena, baina lasaitasunari eta garbitasunari mesede egiten diote: autobusak ez dira herri barruraino sartzen, eta goizeko bostetan dute ordua alde egiteko. Gainera, udaltzain gehiago dabil kalean, eta kanpoan pixa egitea galarazia dago.

Azken hori da gehien nabaritu den hobekuntza, Isabel Cascok dionez: «Pixaren kontua ikaragarri sumatu dugu aurten. Oso jende gutxik egiten du kalean, eta nahiz eta komun publiko horiek ez diren oso estetikoak herriarentzat, ondo betetzen dute euren funtzioa. Gainerako gauzetan ere nabaritu dugu kanpainaren eragina, eta orokorrean nahiko pozik gaude. Jendea kontzientziatua ikusten dugu, batez ere herrikoak, besteei zer ez egin adierazten ikusi ditugu eta», adierazi du. Hala ere, hobekuntza horiek lortzeko borroka pixka bat ere egin behar izan dutela onartu digu Cascok, eta hori oso nekagarria dela aitortu du: «Adostutako arauak errespetatzen ez ziztuztela eta, behin baino gehiagotan salatu behar izan ditugu taberna batzuk, eta garbiketa behar bezala egiten ez zelako ere Udalari kexuka joan gara batzuetan. Ordutegiak ezartzeko eztabaidak ere nekagarriak dira, eta herrikideekin horrela ibiltzea ez da atsegina. Adostutakoa errespeta dadin, sarritan borroka handia egin behar da. Niri, behintzat, indarrak bukatu zaizkit, eta aurten utziko dut Kaxko auzo elkartearen presidente kargua», gaineratu du.

Bizilagunak jada ohituta daudela esan digu Cascok, eta bakea besterik ez dutela nahi azpimarratu du. Udalak erantzukizun handiagoa hartu beharko lukeela ere adierazi digu. Izan ere, tabernarien eta bizilagunen arteko adostasuna eskatzen du Udalak, gero kanpaina aurrera eraman ahal izateko. Baina adostasun hori ez da hain erraza batzuetan, eta bizilagunak baldintzak exijitzen aritu ordez Udalak egitea gustatuko litzaieke. Hala ere, kanpaina mesedegarria izan dela aitortu badu ere, arazoa urteko aste bukaera guztietan dutela azpimarratu du bizilagunen bozeramaile lanak egin dituen Cascok. Eta irribarrez bukatu du esanez hemendik aurrera otsailetik apirilera bitarteko gauak izango direla lasaienak lo egin nahi dutenentzat, paradoxa dirudien arren.

JENDETZA
Mila eta hiru mila lagun tartean elkartzen dira sagartotegi garaian Hernanin gauean

ZARATAREN KONTRA
Zaratari aurre egiteko, Udala, Kaxko elkartea , tabernari eta sagardogileak batu dira

JENDETZA Jende ugari elkartzen da Hernanin sagardotegi garaian, eta horrek arazoak sortzen ditu, zarata dela eta. ION URBE / ARGAZKI PRESS

SAGARDOTEGIA Koadrilak sagardotegiaren ondoren Hernanira joaten dira askotan. ION URBE / ARGAZKI PRESS

PILATUTA Sagardoa edateko irrikan izaten da jendea. ION URBE / ARGAZKI PRESS